

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Balio proposamena atalean aipatu dugun bezala bi bezero mota ditugu:

**-Jaien Antolatzaileak:** Guk gure zerbitzuak eskainiko dizkiegu eta haien interesekoak baldin badira kontratatuko gaituzte.



**-Erabiltzaileak:** Erabiltzaileak gure bezero garrantzitsuenak dira, guk eskaintzen dugun zerbitzua haien arazoak edo beharrak konpontzeko.



Udaletxeak gu kontratatzen gaitu produktua jaietan jendea zerbitzatzeko, eta bikoteek guri ordainduko digute ematen dugun zerbitzuak erabiltzeko eta haien beharrak asetzeko.



Bikote gazteak izango dira bezero nagusiak, eta haien ezaugarri nagusietako bat jaietako espontaneotasuna eta lekurik ez izatea izango da, horregatik haiei beharrak sortzen zaizkie eta guk eskaintzen dugun zerbitzuak behar horiek asetzen dizkiete.



Adin txikikoak oraindik ezin dute sexu harremanak izan baina lege esparrua aztertzen ari gara.

Takilen segmentua handiagoa izango da, edonork erabil ditzakeelako, haien objektuak edo mugikorra gorde nahi badute.

Gainera etxerako bidean gure enpresako norbait beraiekin joatea nahi badute, bakarrik gauean ez joateko, ere erabili ditzakete.